

# Euskalerrriak Uni- DONOSTY bersidadea nai du

Joan dan asteko ZERUKO ARGIA'k garbi asko azaldu du Gipuzkoa'k, bear-bearrezkoa duan, Unibersidadea nai duala. Aurreroko asteen Bilbo ta Bizkaia osoak gai ontzat daukan gogomin bizia ikus-arazi zuan bezela. Ontan danok bat gatoz: Euskalerrriak Unibersidadea nai du. Ta Unibersidate ori bear-bearrezkoa dalako nai du.

Bai bizaikarrak bere Sendalaritza-irakasgoa irixteko ematen dituzten arrazoi biribillak eta baita ere gipuzkoarrak emengo Irakasgo-Nagusia eskatzeko dauzkagan arrazoi marfulak kontuan artzeoak dirala uste degu. Eta kontuan artuko dirala ere bai.

Ministro erkin-berriak, bere kargua artzerakoan egin duan itzaldian, au esana du gai oni begira: «Ba-dirudi, bearrekoa degula Gobernuaren sailleko diran Unibersidadeak ugaltzen astea, eta bere askatasun eta buru-jabeta-sun batean sortu bearko ditugu, noski».

Itz auk Euskalerrrian, bai Gipuzko eta baita Bizkaia ta Araban ere, ondo artuak izango diralakoan gaude.

Baifia extago lo goterik arazo ontan. Gure lurraldetan ortokaxe jarriak daudden Batzordeak bereala asi bear luteke sail au arrotzen. Gai ontan «oportune et importune», garaiko naiz mugaitzeko aizeak astindu bear ditugu. Pozik ikusi ditugu, orregatixe, Tolosa'ko «CIT»-eko gazteak antolatu dituzten jardun-aldiak.

Jardun-aldi auk Euskalerrri'ko Unibersidadeari buruz arituko dira. Bere izanaren arrazoi, prolema tabar...

Gipuzkoari dagokionez asmatu dan ideoa, egikorra dala uste degu. Valladolid'ko Unibersidadeko erretoareakin izan dituzten esamesak ontan gelditu dira: Unibersidate artako Eleder eta Jakintza Irakas-alkian eztauden sail batzuek eta Goigo Ikastetxe batzuek sortu ditezke, alegia, gure artean. Ta izkeltadi oiek nunbaiten ondo gordeak utzi bearko dira. Ezin egon gindezke, beraz, az-zabalik eta gure enbarrari eltzeko. Bai batzordeak berak, eta bai gure Kortetako arduradunak, diputaduen batu-lekuan egoki ta eragikor jokatu bearko dute, gai au aitatzerakoan.

Madril'go egunkari batek esana du, Ministroaren itzak aztertuz: «As-moa ederra da ta guk ontzat ematen degu; baifia arazo au, ministroak ederki dakian bezela, diru-kontua da batezere». ... Au egi utsa da. Ala ere, eztaikigu ze asmotan idatziak izan diran albistari orretan itzok. Guri dagokigun aldetik, gaur au daukagu kontuan artzeko: Ministro berria ta giroa gure asmoen alde jarri dirala. Eta Irakaskintza saillean diru-laguntzak getitzeko asmotan dirala. Egin dezagun, ba, gure aldetik su orri egurra botatzeko alegiña.

Nere biotzeko adixkide Jose Maria Donosty-k, Donostia-ko kronikalarri ospetsuak, liburua bat atera du. San Sebastián y Guipúzcoa bere tituluz. Euskeraz esango litzake, "Donostia eta Gipuzkoa".

Liburu benetan apaña, planoz eta erretrato ederrez ornitua. Argazkiak alde batetik, asko kolorez, eta betetik Donosty idazle eta kronista ospetsuak tarteka ipiniitako idatziak, liburua au benetan balioso egiten dute.

Jendiak jaki gozok nundauden albistea azkartxi zabaltzen du, eta arrigarrikko agerpena egin dio Donosty-ren liburuari.

Egun gutxi buru millaka ale saldu dira. Millaka esan det, batere geiegitu gabe. Liburu batetik millaka saltzea ez da erresa.

Jose Maria Donosty idazle eta kronista pamatuak ondo baño obeto ezagutzen du, bai bere ziadadea, bai bere Gipuzkoa. Donostiko ziadadeak ezik, Gipuzkoa-k ere asko zor dio, eta baita, butik bat, Euskalerrri osoak.

A zer liburu ederra osatuko litzaken Euskalerrriko ainbeste txokori ezkeñi diotkan artikuluko bereziakin! Ikusten daki batez ere gure kronista apaigarriak. Ikusten. Ikusiagatik ez dukite denak ikusten. Ikusten jakite ori, goi-doi berezia bait da. Ikusitakoa begiz zulatu eta zumo izkutatu atera.

Zer da gure Gipuzkoa, turismo aldetik, galdetzen du gure idazle trebeak? Eta berak arantzuten: Gipuzko, gauza guzien gainetik, ikuskizun ztragarri bat da. Paisaje eder-ederra.

Beste batetik, erri eta parajeak ondo onarrizten daki gure Jose Maria Donosty-k. Irakurri bestela Donibane Loitzun, Biarriz eta Bayona-ri eskeintzen dion pajina tsarmanita, beste aldeko itz polit batekin esateko. Ondo bai daki gure kronistak Donosti-ko erriya Bayonatarrek aintzinaan nundatua dela.

Besterik ez bada, gure erri nagusia eta Gipuzkoa obeto maitatzen ikasiko bagenuke Donosty-ren liburuari irakurri!

Zoritxarrez paisajeekin bakarrik ez dala jaten erantzungo didate askotzok. Egia, Oietatik ba dira gure artean bear baño geiago.

Donostiko Kontxa zabala agortu eta itxasoari irabazitako terreno oietan ogei edo ogeitamar bizitzeko etxiak positzeo gai diranak ba ditugu gure artean. Diruz arropuztutako astokillo alenak!

Utzi ditukun orrelakuk alde batera. Ez noa bide ortarik. Auxe besterik ez det esan nai. Beste okasio batean, aspaldi ez dala miona baizik.

Asko eta asko txukuntasunean zabartu gerala aizenkengo urte uetan. Gure erriak —erri asko beintzak bai— zikinak jan bear dituela. Gure txoko politaren maitasuna galdu egin degula. Gai ontan ezergatik etzai-gula ajolik. Eta batez ere, gure artean maitasun ori agertzen duten danari, berialdea txoro pama ezartzen zaiotela. Dirua, irabazi egarria gauza guzien jaun eta jabe. Beste guziak, txorakeriak.

Betz ordu oian Donosty idazlearen antzeko liburuak. Gure erriaren maitasun berezia sortu eraziko duten liburuak.

Eta bukatzeko. Donosty-ren liburuja prantzesera biurtzen ari dira uena onatantze. Biar bada, au agertzean bukatuta egongo da tradizioa. Ez litzake ba zailla izango euskerazko tradizio egoki bat ere. Mesede ederra egingo luke...

*Jose de Arteche*

## ERTZETIK JO-BEAR

Ala esan zuten eta orrela izan da. Aurtengo Aste Santu ontan inoiz baño prantsez geiago omen zeteren onuntz eta, Astea igaro ondoren, orrela izan dala ikusi dugu.

Aste Santu aurrean, Bijaeko Ajen-tziak ziotenez, igaz baño 40 % prantzitar geiago omen ziran España'ri ratzekoak. Andaluzi aldean prantsez ugari izango zan, noski, baña Euskalerrria beintzat, eruz izan ditugu.

Euskal-Erriko bideak prantzitar automobilez josiak ikusi ditugu: andi onuntz, emendik aruntz, Prantzi'ko matrikulak alde guztietan. Izan ere, aurtan, pesetaren merkaldi orrekin majo zabaldu zaizkie ibil-bideak.

Nun-naiko inor atzerria djoanean, an bertako izkuntzez bialiatze atsegin izaten izan. Orrela, Inglatera'ra

djoazatenak pozgarri dute ingeles itz egin al-izatea; Paris'era djoanari benetan atsegin zaio prantsez mintzatu eta zoragarri moldatu dala ikustea. Berdin atzerrian dan beste edozein Eritarra joanik.

Kanpotik onuntz datorren turista jendea, asko izanik, noski, zer bait españolez baldin ba-daki, ala mintzatuko zaizu edo ortan sayatuko zaizu, Cervantes'en izkuntzez. Berarentzat, datorren edozeñentzat, gastelera da «emengo izkera» ta gastelera ezpadaki ez daki, berea ez ezik, emengo besterik.

Kanpotar ori bere izkuntzez datorrigunean, bere izkuntzez erantzuten sayatzen gera. Baña gastelera datorrigunean, ondo edo alaz-mozduko gastelera badagi ere, gastelera erantzuten dio euskaldunak.

Arrotz pozik, noski baño noskiago: España'ra etorri, españolez itz egin diat eta dexente konpondu nauk. Orrela uste du turista orrek. Gertakizun au ondo dago Madril'en edo erdal-errian, baña, ta, Euskal-Erria'n? Guztiak gastelera erantzungo diote, baña zer euskeraz erantzungo ba-geño?

Arrotzari lagundu egin bear zaio, pozgarria eman bear diogu. 9ra baña, goazen aurrera:

Ara emen, Aste Santua baño len-txoago Gipuzkoa'ko egunkari batean zeterren artikuluko baten bukaera: Un consejo que serviré de ejemplo. Si un francés se empeña en hablarle a usted en castellano, por mal que lo haga él y por bien que crea usted expresa-re en la lengua de Molière (prantsez alegia), responda en castellano, para hacerle feliz».

Artikulu ori ondo dago erdalerrirako, baña ez ordea euskalerrirako.

Euskera ere ba-dala munduan jakin bezate. Aintzakotzat artu gaitzate. Kaikukeriz ta «quijotimos» naikoa izan dugu euskaldunok gaurdño.

Jaime Pol Giral, aipatutako egunkari onek Paris'en duen korrespondentari, onela erantzuten diot: Prantsez orri euskeraz erantzungo diot. Orix! Zergatik?!

a) Euskalerrri bat ere ba-dalako munduan. Jakin bezate.

b) Euskera ere aintzakotzat artzekoa dalako, edo bear dalako.

d) Masailleko bat artu ta beste masailleka jartzen naikoa egin duela-ko euskerak.

e) Gastelera bezela euskera ere ikasi dezatela gure lurrera etorri ta «arrotz»-izkuntzez mintzatu nai badute.

f) Naikoa arlote ta kanpo-larrosa portuak geraldako ta jokabide orretan kito egin bearra dagoelako.

«Extremismoa» dala? Izan ere extremo batean gaitzute. Euskera ertz batean daukagu eta ertz estu ortaxe abiatu bear. Pelotari bati zortzi t'erdiaño jaurtzen baldin badiotte pelota, ez dauka lautik erantzuterik, zortzi t'erditik baizik.

Fisika'ko Arkimedes'n dalako orrek garbi erakusten digu: Neumatiku pustu bat uretan indarrez, bultzaka, urperatu naiean dabilenari, zenbat eta ekiniala geiagoz ekin, or-dun eta indar geiagoz goruzko amorro bizan artituko zaio neumatiku ori.

Extremotasunaren gora-berak lege orrek erakusten digu garbi. Ertzean danak ertzetik jo-bear; zapaldua danak goruzko indar egin bear. Ta euskera ertze-ertzean daukagu, ta euskera zapaldua daukagu.

IMANOL LASPIUR

## Kristau egiazko bat hil dute

Martin Luther King'ek oiñaze asko jasan behar izan du. Viet Nam'go arazoan gobernuaren kontra agertu zalako, erdi-komunistatzaletz zuten eskuindarrek; amerikar beltzetako garbiki agertu zan betidikian arazakeria guzian arerio, eta hunek anitz etsai lortu zion; jekibideei buruz, azkenik, Ebanjelioa eta Gandhi'n erikintza gidarizat harturik, ez zituen danak bere aldekoak izan: Stokely Carmichael'ek eta beste ikasle-ohi beltzek berek abeslarizat baztertu zuten azken bolada huntan.

Bortxaren etsai porrokatua zana, Mahatma Gandhi bezelaxe, bortxaz hilla izan da.

Segituan, mundu guzian barrera, iritzi hau zabaldu da: "gizon on prestu bat hil da". Fazisten artean izan ezik, ez da ia inor ausartu King kondenatzeraz.

Denbora berean, halere, beste iritzi hau zabaldu da, ia-ia lehenengoa bezin ausarki: "gizon onu zan, bai; baiñan errealdismorik ez zuen". Iritzi hau kristauetk berek onartu dute askotan. Eta solasak gogoeta batzuk merezi ditu.

Che Guevara hil zanean ere, pittin bat modu hortara zabaldu ziran iritzi berberak.

Prestutasuna eta zozokeria, bertutea eta ergelkeria gauza bera balira bezela hartu ohi bide dira: «garritzen duenak egia zuen, garritzen ez duenak ez"... Hau esaten dute batzuk "Che"z hitzegitean.

"Zer lortu du", entzunarazten dute batzuk gaur Martin Luther King'i buruz mintzatzen. Horra hor zuzen irizketotan egiten dan galdera: "oso gizon ona zan, bai; baña, zer?"

Horrelako irizitzi "jentillen" artean hedatzea eta nagusitzea, ez litzake harrigarria izango: mundu hau burruka-leku bakartzat, biziera hau biziera bakartzat, kondaira obra-leku bakartzat daukatena horrela irizte bidezkoa litzake.

Baia kristauen artean hori zabalteak eta sinisteak baitasunaren kinka gaitoaren sakotasuna ager-tzen du. Kristau izenekoek izpiriztuko balore-mailladi bat izan beharko luteke gidari; eta beren lehendabiziko galdera, hau izan beharko luke: "prestuki jokatu du gizon horrek?". Kristauen artean, hortara, ez da gaur Jaungoikoaren

ereifia helburu nagusia, kondairan nagusitzea eta garritzea baizik. Eta hau ez da, nere ustez, inuindik ere kristau joera bat.

Eta azken epaikeria eragikortasuna baldin bada, eta azken neurria kondaira-ondorioa, Makiabelo'k izango luke egia, ez idealistek; "errealistek" eta ez alde-arritik eta zer gerta ere helburu batzuk onartu eta jokabide batzuk baztertu egin dituztenek. Gizonen egokitasuna kondairazko eragintzaren arabera neurtu arabera neurtu behar badugu, eta ez gizar baloreen arabera, laister ikusiko ditugu aldareetan eta imajinetan Borgta, Aragoi'ko Fernando V-garrena, Bonaparte, Stalin, eta beste "errealista" batzuk; eta laister zakarretan, aldiz, Asi'ko Frantzisko, Jatsu'ko Xabier, Gandhi, Martin Luther King eta Che Guevara. Okerreriarik gaitzenak laister onartu beharko genituzke; munduan ez baita eskuarki zuzentasuna nagusitzen, gaitakeria baizik.

"Munta duena burruka egitea da, ez burruka batean edo bestean garraitze iritez", zion politikari ospatsu batek. Kondairaz kampo beste absoluturik dugunok, ontzat ematen dugu iritzi hori: ez dugu garritzetotan burruka egiten, zuzentasunaren alde eta gizonaren diñatasunaren alde burrukatzea erabakia dugulako baizik.

Martin Luther King' ek zapalduetako alde bizia ematea erabaki zuen. Eta begiak Ebanjelioko hitzetan jarriak (eta ez kondairako ondorioetan) bizia bera eman du alai; eta, inoerikiko herarik batere gabe, izkribu hungikgari hau idatzarazi ru bere hioibian: "Amiz esker, Jaungoikoa: orain libru naitz".

Martin Luther King'ek bere burua trazendentzian finkaturik jokatu du beti, mundutar irizpideak erabat alde batera utzirik.

Sasi-kristautasunaren politika-maillako zitrinkeria eta abilerkik gaur eta aspaldianik nagusi diralarik, Martin Luther King'en parrapide aratza gailen agertzen da, indarkieraren lege gaitzesten, eta Ebanjelioaren xedeak egiazki aintzakotzat hartzen dituzten guzian aurrean.

LARRSORO

## ESKATU:

Zeruko ARGIA-ren bidez, zure etxera bialduko zaizkizu, zuk nai dituzten liburu ta liburuak auk:

	Plak.
<input type="checkbox"/> «23'garren Yon Aita Santua ta «I'garren Batikano» Batzarra» Yurre'tar Yulen A.	60
<input type="checkbox"/> «6-garren Paul Aita Santua ta «II-garren Batikano» Batzarra» Yurre'tar Yulen A.	90
<input type="checkbox"/> «Joanes XXIII Aita Santuaren «PACEM IN TERRIS». Ignazio Goikoezake euskeratua.	10
<input type="checkbox"/> «Lourdes'ko Ama» - Euskal Meza. P. Francisco de Lazcano. Donosti'ko Eliz-barutian noratua.	35
<input type="checkbox"/> Kontu zarrak eta kontu berriak. Edic. «Apakia».	5

X dutenak nai ditut. Bialdu zuzenbide ontara:  
Izena .....  
Zuzenbidea .....  
Erria ..... (Probintzia) .....